

...ZARA ETA ...GUSTATEN ZAIT

DENBORA: 4 eskola-ordu

IKAS-JARDUERAK

0 ...NAIZ ETA ...GUSTATZEN ZAIT

Helburua: Ikasleak sexuaren araberako portaerak eta elementuak identifikatzen abiatzea.

Deskripzioa: Bakarkako gogoeta-jarrera, pertzepzioak zein iritziak kontrastatzeko talde-lana.

Orientabideak: Ikasleak hurbileneko testuingurutik abiatuko dira monografikoaren gaia aztertzeko. Ikasleek generoa eta portaera-molde batzuk parekatuko dituzte. Taldeak, berriz, ikasleen arteko pertzepzio ezberdinak aztertzen eta asoziazioen berdintasunak zein ezberdintasunak bereizten lagunduko du.

1 KONTAIDAZU IPUIN BAT

Helburua: Ipuin tradizionalak transmititzen dituzten estereotipoei buruz gogoeta egitea.

Deskripzioa: Bakarkako irakurketa eta denen arteko galderak.

Orientabideak: Bi ipuin tradizionalen zatiak irakurriz, portaera-molde batzuk transmititzen direla — eta aldagarriak direla— azaltzen saiatu nahi dugu,

2 LANBIDEAK

Helburua: Familiako kideek duten lanbideetatik abiatuz, ohiz zeregin batzuk emakumeari eta beste batzuk gizonari esleitzen zaizkiola adieraztea.

Deskripzioa: Bakarka informazioa bilduko dugu, eta, gero, taldeka aztertu eta kontrastatu.

Orientabideak: Bildutako datuen arabera, emakumeak lan-merkatuan izandako garapenari buruzko perspektiba historikoa hartuko dugu. Kontuan hartu, agian ez dela aurrerakuntza handiegirik nabaritzen, baina horrek ez gaitu aztoratu behar, gaur egungo egoeraz jabetu eta aurreiritziak nola gainditu behar diren galdetzea baita gure helburua.

3 NORK EGITEN DU ZER?

Helburua: Familian dagoen exteko zereginen banaketa aztertzea.

Deskripzioa: Taldeka egiteko jarduera, mimikaz edo rol-jokoen bitartez. Jasotako informazioa gero aztertuko da.

Orientabideak: Rol-jokoaren bidez, gai honen inguruan ikasleek ezagutzen duten egoeraz jabetuko gara, aldatzen saiauzteko. Ikasleak launaka batu daitezke. Talde bakoitzak familia baten eginkizuna beteko du, familia horren eguneroko jarduera antzetzuz edo. Beste eginkizun batzuk ere egin daitezke. Gero, matematika-jarduera bat egin daiteke —barra-grafiko bat, adibidez—, datuak hobeto ikusteko.

4 JOLAS EGINGO AL DUGU?

Helburuak: Taldeko kideen artean dauden harremanak ezagutzea, sexuaren araberako aukerak dauden ala ez antzemateko. Nesken eta mutilen jolasen artean ezberdintasunak badauden behatu eta, baldin badaude, zergatik den aztertzea.

Deskripzioa: Ikasleek zertan jolas egiten duten eta zeinen artean jolas egiten duten behatuz, ikaskideei buruzko soziograma bat burutuko dugu. Ikasle bakoitzak bere lehentasunak markatuko ditu taulan (edo arbelean). Eraitzen arabera, galdera batzuk edo besteak egingo dira.

Orientabideak: Soziograma eta galderetatik abiatuz, ikasgelako nesken eta mutilen arteko harremanei buruzko gogoeta bultzatuko dugu.

5 NOR DA NOR?

Helburua: Testu neutro bat irakurri ondoren, egindako intreprazioak aztertzea.

Deskripzioa: Pertsonaia bakoitzari identitate maskulinoa edo femeninoa esleitzea eskatuko zaie ikasleei, eta zergatik aukeratu duten azaltzea.

Orientabideak: Betiko asoziazioak egiten badira, estereotipoak apurtuko dituzten pertsonaiak erabili ahal dira. Ikasleek etorkizunean izan nahi dutenari buru mintza daiteke.

6 EDOZEIN EGUN BAT

Helburua: Ikaslea urruneko testuinguru batean sartzea, non sexuen araberako aukera-ezberdintasunak gertatzen diren.

Deskripzioa: Ikasleak irudi batzuk interpretatu behar ditu, aktibo dagoen pertsonaiari identitate bat esleituz, eta irudi bakoitzean gertatzen dena azaltzen saiatuz.

Orientabideak: Seguru asko ikasleek ez dute aski informazio izango komikia benetan interpretatzeko. Informazioa eskaini edo informazioa biltzera bultzatzea gomendatzen dugu. Azkenean, errealitate hori eta gurea pareka daitezke, kontuan hartuz beste herrialde batzuetan gurean baino larriago urratzen direla giza eskubideak.

7 BA AL ZENEKIEN...

Helburuak: Monografikoan egindako lana laburbiltzea.

Deskripzioa: Landutako alderdi guztiak laburbiltzeko jarduera da. Gainera, ikasleak koherente eta kritiko izateko lagungarri izan daiteke. Collage erraldoi bat egitea gomendatuko diogu taldeari, irudiak eta informazioak erabiliz. Aurkitu dutena ezagutarazteko interesa eta premia bultzatu nahi dugu, eta pertsona nagusiei eska diezaieten aukera-desberdintasunak kentzeko konponbidea bila dezatela.

Orientabideak: Irakasleak landutako alderdiak gogoraziko dizkie ikasleei. Gai honi buruz munduko egoera hobeto ezagutzeko informazio gehiago biltzeko gomendioa egin ahal zaie.

GLOSATEGIA

GENERO-DIMENTSIOA

Edozein egoeratan gizonari eta emakumeari tradizionalki esleitu zaizkion zeregenikak direla-eta sortzen diren ezberdintasunak adierazten duen alderdia da.

GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO EKITATEA

Gizon eta emakumeekiko inpartzialtasuna. Berdintasunezkoa edo ezberdintasunezkoa izan daiteke, baina parekoa eskubide, onura, beharrian eta aukerei dagokienez.

GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO AUKERA-BERDINTASUNA

Oztopo sexistarik ez izatea ekonomian, politikan eta gizarte-bizitzan parte hartzeko.

LMHko 2. ZIKLOA

...NAIZ, ETA ...GUSTATZEN ZAIT:

Demagun, nolakoa zaren azaldu behar
dionzula ezagutzen ez zaituen norbaiti.
Pertsonaia bat aukeratu, eta idatz itzazu
puxiketan gustatzen
zaizkizun gauzak.

ADISKIDETASUNA

KIROLAK

JOSTAILUAK

KIROLAK

JOSTAILUAK

ADISKIDETASUNA



1

KONTAIDAZU IPUIN BAT

Irakur itzazu arretaz, ondoko ipuinak:

"Behin bazen sagutxo bat, eskailerak garbitzen ari zela, sos batzuk aurkitu zituen. Halako suertea! pentsatu zuen. Mariapaina zenez, zer erosiko ote zuen pentsatzen hasi zen. Mantala, agian, ala kristalezko galtzerdiak? Oinetakoak? Ala eskunarruak, agian? Zergatik ez esku-poltsa? Zerbait erakargarri, norbaitek begiratzen banau! poz-pozik-. Arrosa koloreko xingola"
(Sagutxo mariapaina).




"Urrutiko herri batean, bi erraldoi gaiztoen menpe bizi zen jendea. [...] Han bertan, lanean ari zen jostuntxo bat bere ogitartea jaten hasi zen, ogia eta menbrilo gozoa... [...] Eta egunsentian, bidean jarri zen jostuna. Herriko jendeak agur egin zion, esanaz: Zorte on izan dezazula, jostuntxo! Akaba itzazu erraldoiak! Onik eta garaile itzul zaitezela! Eta bakarrik ekin zion bideari! Ez zion armadari laguntzarik eskatu! Ausarta zen, gero!. Zakutoa bidelagun, puska batzuk eta laneko tresnak baino ez zituen hartu. Arrisku handia hartu zuen gizonak!"
(Jostuntxo kementsua!)

Denon artean eztabaidatzeko:

Zeintzuk dira bi pertsonaien ezaugarriak? Sagua bazina, zer erosiko zenuke aurkitutako diruarekin? Jostuntxoa bazina, aurre egingo al zenieke erraldoiei? Eta sagutxoak aurre egingo al zien erraldoei? Zergatik? Eta jostuntxoak arrosa koloreko xingola erosiko al luke neska-laguna topatzeko? Zergatik?"

2

LANBIDEAK



3

NORK EGITEN DU ZER?

Beha itzazu zure kideen antzezpenak eta osatu hurrengo taula:

			Zuk	
Gosaria prestatu				
Ohea egin				
Erosketak egin				
Janaria prestatu				
Maskota zaindu				
Arropa garbitu				
Platerak garbitu				
Mahaia jarri				
Erratza pasa				
Afaria prestatu				
.....				

Ondo banatuta al daude zereginak?

Beste ondorioz ateratzen al duzu?

4

JOLAS EGINGO AL DUZU?

Nirekin jolas egin nahi al duzu?... baina zein jolasetan? Erabaki ezazu. Ikasgelako neska edo mutil bat aukeratu behar duzu, eta esan zertan jolas egin nahi duzuen?

Zenbat mutilek aukeratu dute neska bat?

Zenbat mutilek mutil bat?

Zenbat neskek aukeratu dute mutil bat?

Zenbat neskek neska bat?

Zure ustez, neskek eta mutilek elkarrekin jolas egin al dezakezue edozein jolasetan? Zergatik?

S

NOR DA NOR?

"Badira bost urte ile-apaindegi honetan lan egiten dudala. Asko gustatzen zait lan hau, jende asko ezagutzen dudalako, eta beren ilea osasuntsua eta polita egon dadin arduratzen naiz. Batzuetan gogorra egiten da lana, ordu asko egoten naizelako oinez, eta larunbatetan ere lan egin beharra daukat".

Gizona ala emakumea da?
Zergatik?



"Asko gustatzen zait mendia, eta eskalada egiten dut. Naturearekin bat eginda egoten naiz. Baina fisikoki ondo prestatuta egotea eskatzen du, eta, beraz, kirol asko egin eta janari aproposa hartu behar da".

Gizona ala emakumea da?
Zergatik?



Eta zuri zer gustatuko liztaizuke izatea?
Zer behar duzu horretarako?

6 EDOZEIN EGUN BAT

Behatu irudiak, eta idatz ezazu gertatzen ari dena irudi bakoitzaren azpian.



Blank space for writing.



Blank space for writing.



Blank space for writing.



Blank space for writing.



Blank space for writing.



Blank space for writing.



Blank space for writing.



Blank space for writing.



Blank space for writing.

7 BA AL ZENEKIEN...

100 milioi haur
ez direla eskolara
joaten!

100 milioi horietatik,
60 milioi neskek direla!

960 pertsona nagusi
analfabeto daude munduan.
Bi heren baino gehiago
emakumeak dira!

Iturria: ISM (Emakume Sozialisten Nazioarteko Elkartea), Jon Tien-go denentzako hezkuntzari buruzko konferentziatik bost urtera. 1990

Egin ezazue agiri bat denon artean:

..... ko

..... ikasgelakoak gara:

Munduko neska eta emakumeen egoera ikusita,
hauxe pentsatzen dugu:

Eta, gainera, uste dugu:

Sinadura